



LABek salatzen du EAEko Hezkuntza Sailak ez duela bertako langileak egonkortzeko borondaterik izan kontsolidazio prozesuetan

Abenduaren 31 heldu baino arinago lanpostu publikoen kontsolidazio LEP deialdiak argitaratu behar dira, eta, beraz, hauen oinarrien negoziazioak amaierara iritsi. Hori dela eta, atzo eta gaur, EAEko Hezkuntza Sailak argitaratu ditu deialdi eta oinarriak. LABek adierazten du Hezkuntza Sailaren menpeko langile kolektiboetan oro har ez dela negoziatorik egon.

Lan-legepeko langileei dagokionean, kontsolidaziorako salbuespeneko deialdien oinarriak negoziatzeko Hezkuntza Sailak eskumen osoa izan badu ere, bertan lanean egon diren langileen esperientziaren baremoa %60ra mugatu du, EAEko funtzio publikoko aginduei jarraiki eta LABek proposaturiko %90ari muzin eginez. LABek salatzen du negoziazio kolektiboaren urraketa egon dela eta azken momentuan antzestu dela balizko negoziazioa, zeinetan ekarpenak egiteko aukera oso mugatua izan den.

Sukalde eta garbiketari, ELA, UGT eta CCOOek deialdia babestu eta sinatu dute. Sinadura honek heziketa bereziko negoziazio guztia baldintzatu du, sukalde eta garbiketari sinatutako irizpideak heziketa bereziko deialdira trasladatu baititu Hezkuntza Sailak, negoziazioa itxiz. Ondorioz, ez da lortu atera zitezkeen lanpostu guztiak eskaintzea, ez eta 60 urte baino gehiago duten langileak babesteko neurrikeri ere, eta ez dakigu langile finkoen lekualdatzeak gauzatuko diren ere. Sukalde eta garbiketari oinarriaz gain, Hezkuntza Sailak gainontzeko kolektiboetan ez du babes eta sinadurarik eskatu, izan ere, ez baitute behar, behin-behinekotasun tasa %8ra jaisteko salbuespeneko deialdiak gauzatu behar dituztelako.

Alta, LABek azpimarratu nahi du bestelako negoziazioa eman dela Haurreskolak Partzuergo publikoan, lan esperientziak % 75eko balioa izango baitu. Horretaz gain, prozesuaren izen-emate data zehaztu da, lanpostuen zerrenda berria negoziatuko da, hezitzaile historikoen akordioa errespetatuko da (1990ean lanean zeudenak eta 2008ko LEPa gainditu zutenak) eta finkoen lekualdatze lehiaketa hutsik dauden lanpostu guztiak eskainiz gauzatuko da, guztiak LAB sindikatuak eskatutako kontuak.

Irakasle funtzionarioen esparruan berriz, Hezkuntza Saila Madrilen zehaztutako irizpideak aplikatzera mugatu da eta Lanbide Heziketari irakasle teknikoaren kasuan, 295 lanpostu 2. hizkuntza eskakizun gabe kontsolidatzera atera ditu. LABek juridikoki salatu du azken erabaki hau.

LAB sindikatuak [erakutsi](#) du borondate politikoa egonez gero aukera zegoela bertako langileak salbuespeneko kontsolidazio LEP deialdi hauen bidez egonkortzeko.

Euskal Herrian, 2022ko abenduaren 29an



LAB denuncia que el Departamento de Educación de la CAV no ha tenido voluntad de estabilizar sus plantillas en los procesos de consolidación

Antes del 31 de diciembre deben publicarse las convocatorias de OPE de consolidación de empleo público y con ello, finalizan las negociaciones de sus bases. Por este motivo, entre ayer y hoy, el Departamento de Educación de la CAV ha hecho públicas las convocatorias y bases de diversos procesos. LAB manifiesta que, en general, no ha habido negociación con los colectivos de trabajadoras y trabajadores dependientes del Departamento de Educación.

En cuanto al personal laboral, si bien el Departamento de Educación tiene plena competencia para negociar las bases de las convocatorias excepcionales de consolidación, ha limitado a un 60% la baremación de la experiencia del personal que trabaja para el departamento, siguiendo las prescripciones de la Función Pública de la CAV y haciendo caso omiso a la propuesta de LAB de que contara un 90% de la puntuación. LAB denuncia que ha habido una vulneración de la negociación colectiva y que en el último momento se ha escenificado una supuesta negociación, en la que la posibilidad de hacer aportaciones ha sido muy limitada.

En lo referente al personal de cocina y limpieza, ELA, UGT y CCOO apoyan y firman la convocatoria. Esta firma ha condicionado toda la negociación en Educación Especial, ya que el Departamento de Educación ha trasladado los criterios firmados en cocina y limpieza a la convocatoria de educación especial, cerrando cualquier posibilidad de negociación. En consecuencia, no se ha conseguido ofertar todos los puestos de trabajo que se podían sacar, ni incluir medidas de protección para el personal mayor de 60 años, ni tampoco se sabe si se llevarán a cabo los traslados del personal fijo. Salvo en las bases de cocina y limpieza, en el resto de colectivos del personal el Departamento de Educación no ha pedido el apoyo ni la firma, ya que no lo necesita, ya que está obligado a realizar convocatorias excepcionales para reducir la tasa de temporalidad al 8%.

LAB quiere destacar, en cambio, que se ha dado otro tipo de negociación en el Consorcio público Haurreskolak, ya que la experiencia laboral va a contabilizar el 75% de la puntuación. Además, se ha fijado la fecha de inscripción en el proceso, se negociará la nueva Relación de Puestos de Trabajo, se respetará el acuerdo de educadoras históricas (que en 1990 estaban prestando servicios y aprobaron la OPE de 2008) y el concurso de traslados del personal fijo se llevará a cabo ofreciendo todas las plazas vacantes, todo ello a propuesta del sindicato LAB.

En el ámbito del personal funcionario docente, el Departamento de Educación se ha limitado a aplicar los criterios establecidos en Madrid y en el caso del profesorado técnico de Formación Profesional ha sacado a consolidación 295 plazas sin perfil lingüístico 2. LAB ha denunciado en los tribunales esta última decisión.

El sindicato LAB ha demostrado que si hubiera voluntad política, se podría estabilizar al personal del Departamento de Educación mediante estas convocatorias excepcionales de OPE de consolidación.

En Euskal Herria, a 29 de diciembre de 2022